

Gipuzkoako landa auzoetan Udalek eta Aldundiak garatu duten hezkuntza-jarduera

(Education work developed by Town and Provincial Councils in rural neighbourhoods of Gipuzkoa)

Garmendia Larrañaga, Joxe
Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia. Miraconcha, 48.
20007 Donostia

BIBLID [1137-4446 (2008), 16; 193-225]

Jaso: 07.07.20

Onartu: 07.12.03

Artikulu honetan XVIII, XIX eta XX. mendeen Gipuzkoako Udalek, Aldundiak eta landa-auzoetako auzotarrak, baserritarrak, eskolatzeara eta auzo-eskolak garatzeko egindako lana deskribatzen du. Gipuzkoako auzo eta bailaretako egoera bereziak (baserri sakabanatuak, egoera ekonomikoa larria, haurren eta gurasoen eskolarako motibazio eza, erlijioaren eraginak, ingurune malkartsuak...) baldintzatu zuen bertako eskolaratzea. Elizaren ekimena ere aipagarri da jarduera honetan.

Giltza-Hitzak: Alfabetatzea. Hezkuntza. Auzo-eskolak. Lehen Hezkuntza. Ikerkuntza Historikoa.

En este artículo se describe el trabajo realizado por los Ayuntamientos de Guipúzcoa, la Diputación y los habitantes de los barrios rurales (baserritarrak) para desarrollar la escolarización y los colegios de los barrios en los siglos XVIII, XIX y XX. La situación especial de los barrios y barriadas de Guipúzcoa (baserri desperdigados, precaria situación económica, falta de motivación hacia el colegio por parte de niños y padres, influencia religiosa, terreno accidentado...) condicionó la escolarización de esas zonas. La acción de la iglesia en este tema también es destacable.

Palabras Clave: Alfabetización. Educación. Colegios de barrio. Educación Primaria. Investigación Histórica.

Cet article offre une description du travail réalisé par les Mairies du Gipuzkoa, la Députation et les habitants des quartiers ruraux (baserritarrak) pour le développement de la scolarisation et des établissements scolaires en milieu rural, au XVIIIe, XIXe et XXe siècle. La particulière situation des quartiers ruraux du Gipuzkoa (fermes disséminées, précaire situation économique, manque de motivation des enfants et des parents vis-à-vis de l'école, influence religieuse, terrain accidenté...) a conditionné la scolarisation de ce territoire. L'action de l'Église en la matière est également remarquable.

Mots Clé : Alphabétisation. Éducation. Établissements scolaires de quartier. Enseignement Primaire. Travaux de recherche historique.

1. OINARRIZKO HEZKUNTZAREN GARAPENA XVIII. ETA XIX. MENDEETAN

XXI. mendean Estatua eskolaren suspertzaille nagusia izan arren, historikoki ez da beti horrela izan. Azken mendetan eskola eta eskolatzeari Elizari eta Udalei erabat lotuak egon dira eta poliki-poliki hedatzen joan dira. Instituzio hauen ekimena nabarmendu behar bada ere hauek, ia gehienetan, gaztelerazko hezkuntzaren bultzatu eta garatu dute. Zoritxarrez instituzioen aldetik euskaraz irakatsitako hezkuntza garatzeko ekimen gutxi egin da.

Nahiz eta garai bateko eskolak eta eskolatzeari gaurkoaren hedapena eta garapena ez izan, hauek faktore garrantzitsuak dira mentalitateen eta pentsamoldeen ezarpenean. Historia orainaldian interpretatzea ezinezkoa izan arren, ezin da ukatu hezkuntzak eta hizkuntzak herrien eta estatuen sendotze eta garapenean eragin nabarmena dutela, bai gaur egun eta baita historikoki. Testuinguru honetan kokatuko genuke Euskal Herrian eta Gipuzkoan garatu den eskolatzeari.

Alfabetizazioaz eta hizkuntzaz ari garenez, esan behar da Trentoko Kontzilioaren ondoren Eliza herri-mintzairak kontuan hartzen hasi zela, katekesi-lana eta eliza-predikatuak euskaldunak euskaraz bideratu nahian. Urte haietan, aurreko mendean ez bezala, euskal dotrina eskola bidezko irakur-idazgintzan txertatzeko ahaleginak egiten hasi ziren. Kardaberazen 1761eko *Eusqueraren Berri Onak eta ondo escriptizeco, ondo iracurteko eta ondo itzeguiteko erregelak* da horren adierazleetako bat. Hau horrela izanik ere, jokaera honek ibilbide mugatua izan zuen eta bestelako bidetik jo zuen XVIII. mendean eskolatzeari hedapenak. Euskarazko dotrinaren irakaskuntza ahozko transmisio-alorrera mugatu zen eta eskolan erdal hezkuntzaren hedapen-moldea ezarri.

XVIII. mendean, Lehen Hezkuntzako eskolak hedatzen hasi zirenean, funtzio berria erantsi zitzaion irakaskuntzari, euskal hiztunak erdalduz. Eta, ordura arte ez bezala, herritar euskaldunaren belaunaldi osoaren translinguifikazioa zuen xede. Eskola gutxi hedatua zegoenez, hasiera batean, herri txiki eta baserrietan eragin mugatua izan zuen. XVIII. eta XIX. mendean ukazina da eskolak ez zuela gaur duen eragina.

1.1. Gaztelerazko eskolaren ezarpena, euskara eta euskaldunok gutxietsiz

Euskal udalerrietako hezkuntzari dagokionez, XVIII. mendean arte herrietako eskola gehien funtzionamendua autonomia izan zen; gehienbat instituzio partikularrei, eta Udalei zegokien bere ardura. Baina liberalismoa ezartzen zihoan heinean Espainiak, Frantziak eraiki zuen eskola eta hezkuntza-sistema ereduari jarraiki, lege zentralista eta homogeenak agindu zituen. Gizartearen modernizazio prozesuan eta klase interesak medio, burgesiak boterearen hegemonia ziurtatzeko ezinbestekoa zuen eskola eta heziketa kontrolatzea; Estatu-Nazioaren markoan kultur homogeenotasuna bultzatu beharra:

Evidentemente: con la lectura y escritura (en castellano) el ciudadano puede comprender y conocer los beneficios del nuevo régimen; con una gramática, una

ortografía y una misma aritmética para todo el Estado se unifica la lengua, se sistematiza la base de unas relaciones de producción a nivel nacional.

Beraz hezkuntza-sistemak eta instituzioek euskarazko hezkuntza suspertu baino gehiago galarazi egin dela esango genuke. Honen adibide ugari daude, begira bestela 1784ko arazoaren 27ko Aiako Eskriturak dioena¹:

Dará orden estrecha de que nunca hablen entre sí el vascuence, sino el castellano. Y para puntual observancia de esta orden se valdrá del medio común o sortija, tomando cada sábado razón de su paradero y reprendiendo, apercibiendo y castigando directamente al se hallare con él.

Eskolan euskaraz hitz egiteagatik jartzen ziren zigorretaz ere sarri mintzatu dira, bai bertakoak eta baita kanpokoak. Horrela zioen Humboldt-ek 1801an².

Se persigue el vasco en las escuelas. El maestro da al principio de la semana a un niño el *anillo*. Este niño se llama "el rey". Presta atención a quien habla una palabra en vascuence fuera o dentro de la escuela con otro escolar y le da el anillo. Éste a su vez presta atención a lo mismo y da el anillo, y así sucesivamente. Al fin de la semana pregunta el maestro por el *anillo* e inquiriere en serie a todos los niños que han recibido unos de otros. Estos se han de poner luego con los brazos en alto en cruz, levantar por detrás la camisa y se les castiga.

Urte hauetan Lehen Hezkuntzako ikasketei dagokienez, irakaskuntza-plana dotrina ikastera eta *trivium*-era mugatzen zen; hots, dotrina buruz ikasi eta, ahal zen neurrian, irakurri, idatzi eta zenbatu. XIX. mende erdialdean hasi ziren aldaketaren lehen urratsak, demokratizazioaren lehen urratsak eskolara iritsi eta curriculumean ikasgai berriak sartzen hasi zirenean. Dena dela, aldaketak gehienbat formalak ziren, dokumentuetan aipatzen ziren baina ez ziren gehienetan praktikan jartzen. Liberalismoak proposatzen zituen aldaketak ia ezinezkoak ziren diru ekarpenik gabe, gainera ez dugu ahaztu behar erlijioa zuztarretaraino sartua zegoela euskal gizartean eta horrek ibilbide propioa markatzen zuen. Oraindik ikasleen lehen ikasgaia dotrina buruz ikastea zen, eta honekin batera ezinbesteko obligazioak meztara joatea, bezperak, prozesioak...

Testuinguru honetan Espainiako legedia eta irakaskuntza-planei buruz hitz egitea ezinbestekoa da. Espainiako legerian eta XIX. mendean bi dira aipatu beharreko mugariak: 1812ko Cadizko Konstituzioa eta 1857ko Moyano Legea (Quintanaren Informe eta 1814ko Lege Proiektuarekin batera, Espainiako hezkuntza-sistema nazionalaren sorburua izango direnak). 1812ko Konstituzioak, lehenbiziko aldiz, etorkizunean izugarritzko eragina izan zuten printzipioak aipatzen zituen:

336. artikulua. *Lehen Hezkuntzako eskolak ezartzeko agindua zehazten du "en todos los pueblos de la Monarquía". Inongo hizkuntzarik aipatzen ez denez, toki-*

1. TORREALDAI, J. M. *El Libro Negro del Euskera*. Donostia: Tartalo, 1998; 16-17. or.

2. "Diario de viaje vasco, 1801". *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, XIII. tomoa, 656. or. Bonifacio de Echegaray *Jakintza*, zenb. 7 (urtarrila-otsaila 1934).

ko hizkuntzak baztertuz, gaztelera ezartzeko bide eraginkorrena zela pentsatu beharko da.

368. artikulua. Garrantzi handikoa da, liberalismo espainiarrak hezkuntza-arloan izan duen bateratze helburua zehazten baitu: “*El Plan General de Enseñanza será uniforme en todo el Reino...*”.

369. artikulua. Bertan azaltzen da Estatuak irakaskuntza kontrolpean izateko duen ahalmena: “*Las Cortes por medio de planes y estatutos especiales arreglarán cuanto pertenezca al importante objeto de la Instrucción Pública...*”.

Lehen Hezkuntzari dagokionez, ekarpen interesgarrienetakoa 1838an onartutako Oinarrizko Irakaskuntzari buruzko Legea izan zen. Honek 1812ko Konstituzioaren printzipio nagusiak jarraitzen zituen (estatalizazioa, zentralizazioa, bateratze-mailak, curriculumak eta ikuskaritza) eta Espainiako hezkuntza-sistema nazionalaren zutabea izango den Moyano Legearen aitzindari izan zen –Moyano Legea 1857an martxan jarri eta ia 100 urte iraun zuen–.

Garai honetako hitzunen egoera argi azaltzen du 1867an J. M. Eguren-ek, Gipuzkoako Hezkuntza Ikuskaria izandakoak eta gaztelera irakasteko Diccionario Vasco-Castellano-a argitaratu zuenak. Ikuskari honek onartzen zuen gipuzkoako biztanleek erabat euskaraz hitz egiten zutela eta eskolara joaten zirenean ez zutela gaztelera ulertzen, dotrina bakarrik, hau baitzen euskaraz ematen zen gai bakarra. Egoera hau aldatzeko bere metodoa proposatu zuen³:

La inmensa mayoría de los niños que asisten a las escuelas de nuestro país no entiende el castellano, pues que en los pueblos rurales, que son los que forman la mayor parte de la hermandad guipuzcoana, solamente se habla el vascuence, con muy cortas excepciones, y aún en las poblaciones de más importancia no es todavía habitual la lengua castellana sino entre las personas cultas y de más instrucción. Así es la conveniencia y hasta la necesidad apremiante que hay de enseñar la lengua castellana en las escuelas de Guipúzcoa. En general el pueblo guipuzcoano habla usualmente el vascuence y por consiguiente esta es la primera lengua que aprenden los niños.

Resulta, pues, que cuándo empiezan á asistir á la escuela no entienden bien el castellano, y como en este idioma aprende a leer, escribir y todos los demás ramos de la enseñanza, excepto la doctrina cristiana, no comprenden lo que leen y estudian y el desarrollo intelectual, en el cual consiste la verdadera instrucción, es sumamente lento. De aquí el que los maestros tengan en las escuelas vascongadas mucho más trabajo en el ejercicio de su penosa misión, con el disgusto de no conseguir satisfactorios resultados muchas veces por más que se esfuerzen; por consiguiente no progresa como debiera la enseñanza.

3. DÁVILA BALSERA, P. y EIZAGIRRE SAGARDIA, A. “Alfabetización y euskaldunización en Euskal Herria”. In: ESCOLANO, A.: *Leer y escribir en España. Doscientos años de alfabetización*. Madrid: Fundación German Sánchez Ruperez, 1992; 195. or.

EGUREN, J. M.: *Método práctico para enseñar el castellano en las escuelas vascongadas*. Vitoria, 1876.

Gizartean eta hezkuntzan aldaketak ikusteko XX. mendera arte itxaron behar da, bai hirietan eta baita landa-ingurunean ere.

1.2. Euskarazko hezkuntza eta Gipuzkoako Udalen eta Aldundiaren ekimena

Aldundia eta euskaraz garatutako hezkuntza aztertzerakoan ezin bestekoa dugu azpimarratzea zenbait autorei emandako laguntza, horrela: Segurako Luis Astigarragaren, *Diccionario manual bascongado y castellano y elementos de gramatica* (1825); Hernaniko Pascual Iturriagaren *Dialogos Vasco-castellanos para las escuelas de primeras letras* (1842); Zaldibiko Frantzisko Ignazio Lardizabalaren, *Gramatika Vascongada* (1853) eta *Testamentu zar eta berrico condaira*; eta Juan Ignazio Iztuetaren, *Gipuzcoako probintziaren kondaira* (1847). Gipuzkoako zenbait agintariek lan hauen bitartez euskara eta euskarazko hezkuntza zabaldu beharra ikusten zuten. Autore hauek laguntzeaz aparte Tolosan, 1845tik 1848ra, Irakasle Eskola ere jarri zuten martxan; eskola honek irakasle euskaldunak sortzea zuen helburu. Baina ekimen hauen eragina oso mugatuak zen estatuaren ekimenaren aurrean eta gehienetan Administrazio zentralaren aginduak bat egiten zuten bertako agintarien nahiarekin.

Dena dela, Estatua finkatzeko asmoz, Administrazioetik ezartzen joan zen legeria ez zen izan beti bertako agintarien gustukoa. Lege zentralisten ezarpenei euskal foru-instituzioek, samur bada ere, une batzutan aurre egin zioten. 1857an Moyano Legea ezarri zenean, ez zuten hau begi onez ikusi Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako Aldundietako ordezkariak eta horrela 1859ko uztailaren 4ko Dekretuarekiko desadostasuna adierazi zuten. Egindako eskakizunei erantzunez, espainiar Gobernuak Foru Aldundiek aurkezturiko proposamena jaso zuten. Kexa honi esker Moyano Legea, Gipuzkoan, Araban eta Bizkaian aldaketekin garatu zen.

Urte batzuk geroago II. Gerra Karlistak iraun zuen bitartean, 1873tik 1876ra, 1876an, Karlistak agintean egon zirenean, euskarazko irakaskuntzaren alde aritu ziren eta bere *Lehen Instrukziorako Batzarraren aginduz; Iracurtzaren asirac edo lenasteac euscalerrico aurrentzat (Principios de lectura para los niños de Euskal Herria)* argitaratu zuten. Euskal Herrian sortutako egoera politikoak, hezkuntza-politika berri baten garapena ahalbideratu zuen, baina honek denbora gutxi iraun zuen. Oinarritzko hezkuntzari dagokionez, indar karlistek honako proposamenak bultzatu nahi izan zituzten:

- Maisu-maistren kontratazioa. Hauek Udalak izendatu behar zituen eta euskara ezagutu eta menperatu behar zuten.
- Irakaskuntzaren edukiaz. Erljio kristauaren sakon eta zabal irakastearen alde zeuden.
- Ikuskaritza. Elizgizonen presentzia nabarmena zen.

Beraz, une berezietan ezik, esan dezakegu euskal instituzioek ez zutela euskarazko hezkuntza bultzatu eta euskal alfabetatzea gaztelaniaren irakaskuntza errazteko izan zela, behin-behineko elebitasuna dela medio. Karlisten errebindi-

kazioak isildu ondoren, liberalek berriro ere gogor ekin zioten bere hezkuntza-jarduerari.

1876tik aurrera, irakaskuntzari dagokionez, Foruen indargabetzearen Legeak, euskal Aldundien eta Udalen ekarpena baldintzatu zuen. Foruak indargabetzeak eta euskararekiko erasoek egon ezina sortu zuten. Horrela 1885ean, Gipuzkoako Aldundia euskararen alde atera zen, Instrukzio Publikoko Lege berrian euskararen erabileraren aurka azaltzen zen artikulua bertan behera uztea eskatuz. Ekarpen honekin bat egin zuten Bizkaia, Araba eta Nafarroako Aldundiek ere. Horrela zioten nafarrek euskararen aurkako erasoari buruz, Oiartzungo Udalari bidalitako idatzian⁴:

Perder la lengua propia es abrir un abismo infranqueable entre los progenitores y los descendientes, rasgar la trama de la conexión social e histórica, desnaturalizarse u cambiar el alma. El pueblo vasco navarro, como todos los pueblos del mundo, tiene derecho perfecto e indiscutible a su lengua.

(...) La Diputación de Navarra, atenta a conservar rasgo diferencial tan típico y de abolengo tan añejo e ilustre como es la lengua vascongada, ha acordado gestionar cerca del Gobierno de su S. M. la declaración preceptiva de la enseñanza del vascuence en las escuelas del territorio vascongado.

(...) Con la fórmula adoptada, cualquiera que sea la autoridad revestida con el derecho de nombrar maestros, autoridad que por fuero tienen aquí los Ayuntamientos, habrá que exigirse a las personas que hayan de regentar las escuelas, como condición ineludible el conocimiento de la lengua euskara, que es precisamente la laudable y patriótica moción de V. E.

Eztabaida politikoak pil-pilean zeuden bitartean, landa-auzoetako eskoletaz inor gutxi gogoratzen zen. Baserrietako seme-alaben hezkuntzaz ia ez zen inor arduratzen. Egoera hau gainditzeko, Udalek auzoetako apaizaren onespenearekin, oinarrizko instrukzioa zuten pertsonak jarri zituzten auzo-eskolen kargu, *-sasi-maisu* eta *sasi-maistre*-, eta hauei diruz laguntzea erabaki zuten, landa inguruetako haurrek ere eskola jaso zezaten. Maisu-maistra hauek gehienetan titulurik gabekoak izaten ziren eta dotrina ematea izaten zen bere eginkizun nagusienetakoa. 1889an Azkoitiko baserritarrek, zera eskatu zioten Udalari:

Que de acuerdo con los demás vecinos de la barriada han acordado establecer una Escuela particular a fin de que los jóvenes puedan aprender la doctrina Cristiana ya a leer el libro de misa y para cumplir con los preceptos de nuestra Santa religión cuando lleguen a su edad y como no llegan los cuartos para pagar al maestro, por lo que: Suplican a V. S. que para establecer la escuela de que se trata, abone la cantidad que bien tenga conforme lo hace con los demás barrios⁵.

4. Oiartzungo Udal Artxibategia (OUA). Sección B, Fomento Negociado 4, Instrucción Pública, Libro 3 Expediente 5. Escrito de la Diputación Foral y Provincial de Navarra a la Diputación Provincial de Gipuzkoa. 1896ko urtarrilaren 11.

5. Azkoitiko Udal Artxibategia (AUA) Sinatura 1920-3, Kodea 271. Urtea 1843-1900.

Ofizialak ez ziren landa-eskola txiki hauentzat diru gutxi zegoen, eta beraiei laguntzea ez zuen lehentasunezkoa ikusten Estatuko Hezkuntza Ministerio berriak, *Ministerio de Instrucción Pública y Bellas Artes*. Horrela hauen mantenua Udalen eta haurren gurasoen ardura izan zen.

XIX. mendean eskolatzea hedatzeko legeak atera arren, maisu-maistra eta eskola falta nabarmena zegoen eta landa-ingurunetan eskolak gutxi aurreratu zuen. Eskolaketaren erronkari aurre egiteko ekarpen ekonomikoa handia behar zen eta Estatuak ez zuen ardura hartu nahi, beraz oinarritzko hezkuntzaren zama Udalen eta auzotarren gain utzi zuen. Bestalde, Estatuak, berak eraiki ez zituen eskolak gobernatu nahi zituen, udalek finantzaturako udal-eskolak esate baterako, eta honek eztabaida ugari ekarri zituen.

1.3. XIX. mendeko auzo-eskolak

XVIII. mendean herrigunetatik landa, ia ez eraiki eskolarik. Gipuzkoako auzo eta bailaretako egoera bereziak (baserri sakabanatuak, egoera ekonomikoa larria, haurren eta gurasoen eskolarako motibazio eza, erlijioaren eraginak, ingurune malkartsuak...) baldintzatu zuen bertan eman zen eskolaratzea. Egoera honek ekarri zuen, baita, kokagune hauetan eskola publikoak eta erlijiosoak ez eraikitzea.

XIX. mendean, herriguneko eskolak hedatzen joan ziren eta auzo-eskola bakar batzuen berri ere ematen digu Gipuzkoako Aldundiak. Beraz, ingurunea hauetan, auzotarrek eraikiko dituzten eskola txikiak, hots, bailaretako-eskolak, izango da arazoari irtenbidea emateko era bakarra. Auzotarrak, haurren familiak eta instituzioak (Udala eta Diputazioa) izango dira eskola hauen suspertzaila eta sostengu nagusiak. 1824an aurkeztu zuen Reglamento de Instrucción Pública idatzian, bigarren kapituluan, zati bat eskaintzen zaie auzo eta baserrietan lanean ari diren maisuei:

1ª La especie de población de este solar en barrios separados y algunos muy distantes de las poblaciones unidas donde se hallan las primeras letras, priva á la multitud de niños y niñas de los bienes de esta enseñanza; y lo más sensible es que los años primeros que no pueden ser útiles en las labores del campo, pasan en la ociosidad sin aprender apenas las primeras obligaciones del cristiano. Sus padres ocupados y cansados que casi no saben de religión mas que algunas prácticas, no pueden servirles de maestros; no pueden oír la voz de su pastor en la parroquia sino raras veces por la distancia en que viven; el precepto de la iglesia con relación a la misa lo cumplen en ermitas y tanto muchacho de caserío se ve obligado a abandonarlo. No aprender lo que deben saber porque no hay quien le enseñe y no ignoran lo malo porque no hay maestro para aprenderlo. Esta necesidad clama por el remedio y no hay párroco el más celoso que lo pueda poner. Predica, instruye y exhorta en su parroquia; pero las grandes distancias y la dificultad de las malísimas entras separa para siempre a multitud de feligreses. Los únicos que disminuyen de gran manera estos males son los maestros de despoblado, que en ermitas o casas separadas ponen su escuela y hacen el bien que solo ellos pueden hacer por el módico alimento o

recompensa que pagan los padres pobres del campo. Dícese que son los que disminuyen los males, no que los quitan, porque siempre quedan barrios sin este único é inapreciable auxilio ¡Ojalá no hubiese un solo muchacho privado de bien tan grande!

2ª Estos operarios cubiertos de andrajos, y mal alimentados si se quiere, son hombres muy dignos de toda consideración y aprecio de las Juntas de inspección. Uno de los grandes bienes que deben de esperarse de estas juntas es el fomento que deben de dar a estas escuelas del campo. En ellas aprenden el libro de los libros que nos dejó el divino Salvador en su celestial doctrina: aprenden á leer, á escribir y el catecismo: rezan el rosario todos los días, hacen la devoción del calvario, en una palabra, aprenden las principales reglas de moral, y los fundamentos de la religión. Anímese pues a los maestros, y procúrese multiplicar esta especie de escuelas. Que la junta de pueblo por algún individuo de su seno y por algunos hombres honrados de los mismos barrios, cele la conducta de estos maestros aleje al que fuese conocidamente escandaloso y honre hasta los andrajos de hombres tan útiles y tan dignos; en una palabra, la junta no tolere que un perverso enseñe a los muchachos, y anime al que es bueno en su conducta: este debe de ser el único objeto, y estas las únicas reglas de esta parte.

1823an, Gipuzkoako Batzar Nagusien aginduz, Batzorde berri bat sortu zen; Gipuzkoako haurrentzat eskola-arauak eta orientabideak finkatzea zen horren xedea. Batzorde horrek aurkezturiko proposamenetan *auzo eta ermitetako* maisuen defentsa bizkorra egin zuen. Kultur eta erlijio gaiak ikasten ziren eskola umil haietan, maisuei otordua pagatzeko adina ordaintzen zitzairen. Eskolara joateko derrigortasuna ezarri arren, asistentzia murrizta zen, ikasgeletako hezkuntza baldintzak penagarriak eta motibazioa ere hutsaren hurrengoa.

Eskolaratzea Gipuzkoan (XIX. mende erdialdea)

Judizial barrutia	Udal kopurua	Auzotarrak	Biztanleak	Eskolak	Asistentzia Mutil-neskak	Asistentzia denera	% Berta ratutakoak
Azpeitia	29	4.928	24.653	34	1.080-524	1.604	5,54
Donostia	16	5.257	26.776	28	1.256-580	1.846	6,86
Tolosa	39	5.349	26.850	53	1.641-841	2.482	9,24
Bergara	15	5.261	26.366	27	1.330-495	1.825	6,97
Gipuzkoa	99	20.785	104.645	142	5.307-2.440	7.757	7,42

Iturria: Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico de Madoz (1845-1850)

Baina landa-auzoetako eskolentzat laguntza urria zen eta Estatuko instituzioek ez zieten dirurik ematen. Egoera hau gainditzeko, Udalek oinarrizko instrukzioa zuten pertsoneri, *-sasi-maisu eta sasi-maistrei-*, diruz laguntza ematea erabaki zuten, landa inguruetako haurrek ere eskola jaso zezaten. Maisu-

maistra hauek gehienetan titulurik gabekoak izaten ziren eta dotrina ematea izaten zen bere eginkizun nagusia. 1989an Azkoitiko baserritarrek, zera eskatu zioten Udalari:

Que de acuerdo con los demás vecinos de la barriada han acordado establecer una Escuela particular a fin de que los jóvenes puedan aprender la doctrina Cristiana ya a leer el libro de misa y para cumplir con los preceptos de nuestra Santa religión cuando lleguen a su edad y como no llegan los cuartos para pagar al maestro, por lo que: Suplican a V. S. que para establecer la escuela de que se trata, abone la cantidad que bien tenga conforme lo hace con los demás barrios⁶.

Auzo-eskola ez ofizial hauei dagokionez, esan genezake gehienetan auzoko baserri batetan edo baselizaren ondoko etxean kokaturik egoten zirela. Baliabide gutxiko eskolak izanik, bertako irakasleak inguruko emakume eskolatu edo sasi letratuak izaten ziren gehienetan, baita kasu batzutan auzoko apaiz edo erlijiosoak. Hauetako askok gaztelera ez zuten menderatzen eta prestakuntza gutxikoak ziren⁷. Mendian kokaturiko eskola hauek eratzeko ezinbesteko baldintza leku ahalik eta egokiena izatea zen, eta ondoren irakasleari ordaintzako baliabideak izatea. Beste aukerarik ez zegoenez, eta beharrak bultzaturik, landa auzoetako eskola hauek ahal zuten moduan iraun zuten XIX. eta XX. mendean.

2. LANDA-AUZOETAKO ESKOLAK XX. MENDE HASIERAN

2.1. Gipuzkoako Aldundiaren lehen urratsak auzo-eskolak suspertzeko

Mende hasieran eskolara joateko joera gutxi zegoen. Egoera arrazoitzeko argudio oso bitxiak ematen zituzten instituzioetako ordezkariak. 1913ko abenduaren 11n, Aginaga foru-diputatu gipuzkoarrak, horrela zioen Gipuzkoako Batzarretan, auzo-eskoletan ematen zen eskolatzeaz:

El carácter utilitario de éste que sólo se mueve por lo que le produce un beneficio inmediato; utiliza a sus hijos en labores agrícolas, manda al niño lo suficiente para recibir la instrucción necesaria para comulgar, corriéndose el riesgo de que después de siete años, no los mandaran sus padres a instruirse.

Baina denak ez ziren pentsaera berdinekoak. Orbea foru-diputatuak, bilera berean, zera erantzun zion:

Los habitantes de la provincia tienen un patrimonio moral envidiable y por su honradez y por su energía constituyen la honra de la raza, enaltecida por la legión colonial vascongada, que de tan alto predicamento goza en los países

6. AUA. Sinatura 1920-3, Kodea 271. Urtea 1843-1900.

7. DE BENITO PASCUAL, Jesús. *La Enseñanza de primeras letras en Guipúzcoa (1800-1825)*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1994.

americanos, elogía a los maestros que enseñan la educación a los niños guipuzcoanos, komulgatzeko lain, porque eso quiere decir que ellos anhelan que sus hijos sean buenos, que sean cristianos, que sean cumplidores de sus deberes con Dios, para con la patria y para consigo mismos, y no soldados del motín y de las Sociedades de resistencia.

Bi iritzi hauek garaiko ideologia nagusien isla ziren, liberala eta tradizionalista. Politikoeak beren kontuekin jarraitzen zuten bitartean, baserriarren egoera penagarria zen. Joan Mari Zubizarreta Larrañagak, Etxeberritxok, izen bereko baserrian 1855ean jaiotako azkoitiarrak, horrela deskribatu zuen garai hartako bizimodua, bederatzi puntuko Nere ofizioa bertso sortan⁸:

(5) Zortzi ume ditugu, familia fina,/ trabajua jateko sortu ezina;/
guzientzako ez da munduba berdina;/goizian porru salda, gaubian jakina:/
ondo irakina,/ aparra egina,/ andriak kozina,/ postrian sardina;/
ondo izan nahi nuke ezin det baina./

(6) Nire ofiziuua alpargata josten,/saiatuko gerade aulki eta ezten;/
jornal handirik ere ez dute ematen:/sei ta erdi ta zazpi igez eta aurtan;/
egjak esaten,/ gutxi irabazten,/ ez degu izaten,/ miseria jaten,/
aberastuko gera halakoen baten!/
/

XX. mende hasieran Estatu Espainiarretik, hezkuntzaren homogeneizatzea gogotik bultzatu zen. Modernitateak eta Estatuak diseinaturiko hezkuntza eredu berria indartsu zetorren. Espainiako liberalismoa eta zentralismoa gazteleraz mintzatzen zen, gehiengo batek ulertzen ez zuen hizkuntzan. Gipuzkoako biztanleria XX. mende hasieran ia euskaldun elebakarra zen, % 90ak euskara erabiltzen baitzuen, eta hau ez zuten gogoko Espainiar estatuko agintariek. Euskararen atzean pentsaera eta bizimodu tradizionala zegoen, eta honek prozesu berriari erresistentzia jartzen zion. Hizkuntza arazo handia izan zen Espainiar estatuaren ideologia eta bere hezkuntza eredu berria ezartzerakoan. Eragozpen honi aurre egiteko Estatu espainiarrak, kontrolpean zuen hezkuntza-sistemaren bidez, gaztelera inposatu zuen, estatuko beste hizkuntzak kaltetuz eta ahulduz.

Politika honek landa-auzoetan sortzen zituen arazoetaz jabetuz, bertako hezkuntza beharrei erantzuteko saiakerak proposatu zituen Gipuzkoako Aldundiak. Populazioaren gehiengoa euskalduna izanik, beharrezkoa ikusi zuen heziketan euskararen garrantzia azpimarratzea⁹.

8. ARANBARRI, Iñigo: *Urolaldeko bertso zaharrak*. Tolosa: Inprimatzaile Oriabe, 1982.

9. Gipuzkoa eta Euskal Herriko egoera ezin dugu Espainia eta Europa mendebaleko testuingurutik atzertu. Hobsbawn historialarien hitzak erabiliz, XIX. mendea "nazio-fabrikatzearen" denboraldia dugu. Zabaleta, I., bere tesian dioen bezala, Estatuak gizartearen homogeneizatzeari ekin zion eskuartearen zituen tresnak erabiliz, armada eta eskola besteak beste, estatuaren nazionalismoa eta boterea zabaltzeko. Irakaskuntza izan zen, hain zuzen, tresna egokienetarikoa bat. Horregatik orain arte eman ez zitzaion berebiziko garrantzia hartzen du herri xehea hezteak. Ezin dugu ahaztu ere, euskal lurraldeetan foruzaleek gerra galdu arren, udal eta Aldundian indar handia zutela. ZABALETA IMAZ, Iñaki. *Nazioa eta hezkuntza-sistema espainiarren sorrera*. Donostia: UEU, 2000.

1913ko abenduan Gipuzkoako Aldundiko batzarraldian, diputatua zen Aguinaga jaunak azaldu zuen¹⁰:

De los 80 municipios a los que se extiende su administración y acción tutelar, son contadísimos aquellos en que baja de un 40 por ciento el número de electores analfabetos y que en cambio los hay, y de ello dan ejemplo Oyarzun, Aya, Hernialde, Zaldivia y otros, en los que pasan de 76 y llegan a 85 por ciento dichos electores analfabetos; es decir, que de cada cien guipuzcoanos mayores de 25 años a quienes la ley otorga capacidad ciudadana para hacer uso del sufragio, más de las dos terceras partes no saben leer y por lo tanto ignoran los nombres impresos en la candidatura que se disponen a depositar.

Landa-auzoen diagnosis egin ondoren, batzarkideen aurrean adierazi zuen Gipuzkoako 80 udaletan, alfabetatu gabeen kopurua %60 baino handiagoa zela eta segidako azalpenetan, honako arrazoiak azaldu zituen:

- 1.- Gurasoen berekoikeria, eskolatik kanpo ateratzen baitie etekina bere umeei.
- 2.- Aginte, instituzio eta kargudun pertsonen utzikeria, axolagabekeria.
- 3.- Eskolen urruntasuna, haurren etxebizitza eta baserrietatik.

Egoera horrela azaldu ondoren eskola berriak eraikitzea proposatu zuen, kontutan hartuz Espainiako 1913ko ekainak 24ko Erret-dekretuak eraikuntzei buruz esaten zuena. Horrela, Aldundiak urtean 6 eskola egiteko asmoa agertu zuen eta baita 50.000 pezetako aurrekontua aurreikusi, lehentasuna herri eta auzo alfabetatu kopuru murrizta zutenei emango zitzaiola adieraziz. Proposamen honek aparteko oihartzunik eta jarraipenik ez izan arren, balio izan zuen Gipuzkoako alfabetazio eta eskolen egoeraz 1914an ikerketa estatistikoa sakona egiteko. Zoritxarrez ondorengo urtetan ere ez zuen segidarik izan akordio honek. 1920an hezkuntzaren egoera aztertuz beste ikerketa bat egin zen Gipuzkoako eskolen egoera deskribatuz, arazoak berean jarraitzen baitzuen.

Gipuzkoako eskola ezberdinak eta kopurua, 1920an

Eskola eredua	Eskola kopurua
Udal-eskolak	41
Eskola Nazionalak	212
Patronatuko eskolak	21
Eskola Partikularrak	66
Helduen Eskola	97
Arte eta Lanbide Eskolak	14
Igandetako Eskola	15
Auzo-eskola partikularrak	71

10. 1913.12.13. Gipuzkoako Aldundiaren batzarraldiko akta. Gipuzkoako Artxibategi Nagusia GAN, Tolosa. JD IT 1455/1965.

Galdeketa horretan, Udalerrri bakoitzak bere egoera eta arazo partikularren berri eman zion Aldundiari. Ekarpenen artean aipagarria da Oiartzungo Udalak emandakoa, bere idatzian islatzen baitu Gipuzkoako beste herri askotako eskolen egoera eta errealitatea¹¹:

La enseñanza en este valle se hace bastante difícil por la extensión considerable de la población agrícola que hace casi imposible su reunión para los efectos de la enseñanza en los puntos donde radican actualmente las escuelas públicas, particularmente los duros días invernales. La creación de escuelas rurales relativamente numerosas que recogiesen a esa población escolar diseminada y abandonada sería un paso importante para conseguir la superación de la enseñanza en la localidad, hoy bastante descuidada. Inconveniente grande es el desconocimiento por parte de los profesores –en nuestro caso de la profesora– de la lengua del país, que les imposibilita a entenderse con los niños que no saben hablar otro idioma que el suyo propio, siguiendo métodos pedagógicos en pugna con los más elementales principios científicos y forzando las tiernas inteligencias infantiles a los rigores de una mnemotecnia absurda martirizante, sin beneficio alguno para la enseñanza en general ni para los discípulos en particular. Para el municipio de este valle es así mismo problema de importancia suma, el de construcción de escuelas.

El Estado favorece esta construcción subvencionando con cantidades importantes a los ayuntamientos que se dedican a hacerlo. Viviendo Guipúzcoa un régimen especial, y teniendo en cuenta las aspiraciones del país, que se alejan cada día más del régimen centralista absorbente del Estado, la Excm. Diputación haría una obra magna si viniese con su ayuda positiva a sustituir en sus funciones al poder Central en este importante aspecto del problema de la enseñanza.

1921ean Julian Elorza jaunak, karlista eta euskaltzaleak, Diputazioko lehen-dakari kargua hartzerakoan eginiko azalpenetan, gogorki salatu zuen azken urteetan emaniko hezkuntza politika, eta 1920 estatistiken ondorioak azaldu zituen¹². Hezkuntza arloan, zioen, estatuak Aldundiari ia eskumen guztiak kendurik zituela eta gaineratu zuen, baita, erlijioso ordenei esker eutsi zitzaiola eta hauengatik izan ez balitz Gipuzkoa estatuko lurralde atzeratuenetakoa izango litzatekeela. Beraz estatuaren eragina eskolei zegokienez, eta bereziki landa auzo eta bailaretakoei, ez zela nahikoa.

Hitzaldi berean, zeuden hiru eskola eredu kontutan izanik, honako analisisa egin zuen:

Eskola nazionalak zirela diru gehien jasotzen zutenak. 204 maisu nazionaletatik, 90ek ez zekiten euskaraz (% 45). Eskola pribatuek, ez zutela kontrol handirik, baina bere zeregina beharrezkoa zela, eskola nazionalen ezina osatzen baitzuten. Bailaretako eskolei zegokienez zera zioen, hauei arreta gutxi jartzen zitzaie eta landa-auzoetako haur gehienak hauetara joaten direla. Eskola-eroldari zegokienez Elorzak zioen, landa-auzoetan 38.174 balizko ikasleetatik, 15.408 ikasle ez

11. GAN (Tolosa) (JD IT 1874).

12. 1921.08.4. Gipuzkoako Aldundiaren batzaraldiko akta. GAN(Tolosa). (JD ADI 7,9).

zirela inongo eskoletara joaten. Arazoa aztertu ondoren adierazten du orain arte eman ez zaien garrantzia eman nahi zitzaioela oinarritzko hezkuntzaren arazoari. Aldundiko Lehendakariaren asmoak onak izan arren, egoera politikoak ez zion utzi, bere asmoak aurrera eramaten.

1921 eta 1934 urte bitartean Euskal Herrian eta Gipuzkoan, aldaketa handiak emango dira: ekonomi arloan ia herri guztietan industria txikiak hedatzen dira; politika arloan tradiziozaleen eta abertzaleen arteko eztabaida nabarmentzen da; eta kulturari dagokionez kontutan hartu behar da Eusko Ikaskuntzako Kongresuen ekina eta eragina, hizkuntzaren eta lekukotasunaren garrantzia azpimarratuz¹³. Esan dugun bezala, aldaketa garaiak dira, eta 1924an, Primo de Riveraren Diktadura ezartzen da. Aldaketa honek euskal hizkuntzari mesederik ekartzen ez badio ere, ezin da ukatu urte hauetan eskolen eraikuntzari dagokionez Gipuzkoako Aldundiak aurrera pausoak eman zituela.

1924an Gipuzkoako Diputazioko Hezkuntza Komisioak, egoeraren azterketa eginez adierazi zuen 10.000 haur baino gehiago zeudela eskolarazteke, bereziki landa ingururuetan¹⁴. 1926an proposatzen du diru laguntzak banatzerako egokia izango litzatekeela oinarriak jartzea, eta auzo-eskolen berri jakin nahian, urte berean galdeketa bat bideratzen da udaletara, herriz-herriko zehaztapenak eskatuz¹⁵. Estatistika honek auzoetako eskolen informazio zuzen eta osatua ematen digu (datu hauen arabera landa-auzoetan 9 udal-eskola, 31 eskola nazional eta 92 eskola-txiki partikularrak, ez ofizialak zeuden).

Bizkaiko Aldundiak bere auzo-eskoletan ematen ari den plangintza kontutan izanik, Aldundiko diputatuek 1927an Gipuzkoarako antzeko plangintza baten beharra azpimarratzen dute eta abenduan proiektu berri bat onartzen dute¹⁶. 1927ko araudi hau izango da 1930ean eratuko den Auzo-eskoletako proiektuaren aitzindari. Azaldutakoaren arabera ikusten da asmoak izan bazirela, baina arazo ekonomikoak medio, edota interes politikoak aitzakiaz, hezkuntzari dagokionez, Gipuzkoako auzo eta bailaretan hezkuntzari buruz zeuden kezka eta arazoak ez zirela behar adina kontutan hartu.

Primo de Riveraren Diktaturapean, 1923tik 1930era bitartean, hezkuntzari bultzada handia eman zitzaion eta eskola berri asko ireki ziren. Tamalez, maisu-maistra eta testu-liburu euskaldunek jazarpen gogorra jasan zuten:

2º. Los inspectores de Primera Enseñanza, en las visitas que realicen, examinarán los libros de texto de las escuelas, y si no estuviesen escritos en español o contuviesen doctrinas o tendencias contrarias a la unidad de la Patria o contra

13. Estornés, I.(1983). *La Sociedad de Estudios Vascos. Aportaciones de Eusko Ikaskuntza a la cultura vasca (1918-1936)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.

14. 1924.08.24. Gipuzkoako Aldundiaren batzarraldiko akta.

15. 1926.03.11. Gipuzkoako Aldundiaren batzarraldiko akta "Normas de orientación para la labor pedagógica que puede realizar la Corporación". Hezkuntza komisioak aurkezturiko idatzia.

16. 1927.12.18. Gipuzkoako Aldundiaren batzarraldiko akta. "Dictamen proponiendo una solución al problema de la Enseñanza en Guipúzcoa".

las bases que constituyen el fundamento del régimen social, los harán retirar inmediatamente de manos de los niños y procederán a formar expediente al maestro, suspendiéndole de empleo y medio sueldo y dando cuenta a V. E. (1925eko urriaren 13a, Errege-ordena).

Estatuak bultzatu zuena gaztelerazko eskola izan zen eta, berriro ere, gogor eraso zitzaion euskarari, euskal kulturari eta euskarazko hezkuntzari:

Art. 1. Los maestros nacionales que proscriban, abandonen o entorpezcan la enseñanza en su escuela del idioma oficial en aquellas regiones en que se conserva otra lengua nativa serán sometidos a expediente, pudiendo serles impuestos la suspensión de empleo u sueldo de uno a tres meses.

Art. 3. Si se tratase de escuelas de Primera enseñanza públicas o privadas, cuyos Maestros no estén comprendidos en lo dispuesto en los anteriores artículos, podrán ser clausuradas temporal o definitivamente.

2.2. Auzo eskolen egoera

Ikusi den bezala proposamenak, asmoak eta estatistikak ugari izan arren, landa-auzoetan ematen zen hezkuntzaren ia erreferentzi nabarmenena landa-eskola txikiak ziren. 1927 eta 1928ko datu estatistikoen arabera, oro har 236 auzoetan 120 eskola zeuden (hainbat eskola nazional ere kontutan izanik), hauetatik 40 baldintza txarretan eta berri beharrean. Beste 80 auzo eta bailarek ez zuten eskolarik. Eskola hauen egoera eta ekimenari buruz bi deskribapen ditugu jarraian, bat bertako ikaslea izandako batena, bestea Aldundiko Ikuskariak egindakoa:

Eskola hauetara inguruetako neska-mutil kozkorak joaten ziren eta sei-zazpi etxeren artean maisu edo maistra hartu eta denen artean ordaindu eta mantentzen zuten (beti auzoko apaizaren onespenearekin). Eskola hauetan aurrena erreztatzen ikasten zen, baina otoitzak eskolan hasi baino lehen amak edo amonak erakutsiak izaten ziren. Orduko liburu garrantzitsuena Jesusa zeritzana zen, a-e-i-o-u tik hasita, letra handiduna; irakurterraza, ikasitakoan. Gero Katona, letra txikiagorekin eta liburu handiagoa. Ondoren Dotrina izaten zen printzipalena, eta ia kasu gehienetan euskarazkoa, Dotrina zaharra zuen izena, txikia oso. Beste liburu oso erabilia Manuscrito zen, eta mundu guztiko berri ematen zuen letra txiki, bihurri batekin. Beste liburu potolo xamar bat ere izaten zen Lecturas jartzen zuena. Idazteko gurasoek erositako koaderno batzuk, lapitza eta pintura kaxaren bat. Pizarra edo arbel txiki batzuk izaten ziren, txandaka erabiltzeko. Batzuk sumar, restar, multiplicar eta dividir egiten eta besteak idazten. Eskola batzutan tintero txiki batzuk ere izaten ziren, bere tinta urdinarekin, orduan ez baitzen boligraforik. Komunio txikia, zazpi urterekin, eta komunio handia hamabirekin, hauek izaten ziren eskola garaiko mugak¹⁷.

- Eraikuntzei dagokionez baldintza onean zeudenak oso gutxi zirela. Udalek ez zuten behar adina dirurik ematen hauek konpontzeko eta ematen zen diru

17. ZENDOIA, Nikolas. *Diario Vasco*, 2003.IX.30.

saria, maisu-maistrak ordaintzeko izaten zen gehienetan (batz bestea 250-500 pezeta urteko).

- Altzarien egoeraz, eskola gehienetan mahai eta aulkien beharra nabarmena zen. Curriculumak, oinarrizko edukiak ikasten zituzten: irakurri, idatzi eta kalkulua. Hortik aparte, bertako maisu-maistraren jakintzaren arabera izaten zen. Irakaskuntza euskaraz eta gazteleraz izaten zen eta baita bi hizkuntzetan, eta hizkuntza ereduak aukeratzea, maisu-maistraren eta gurasoen arabera izaten zen.
- Ikasleria. Eskoletara 6-12 urte bitarteko ikasleek joaten ziren. Gehienek euskaraz bakarrik mintzatu eta ulertzen zuten. Asistentzia ez zen jarraitua eta urte sasoiaren baitan zegoen, baserriko lanak egiterakoan eskolak hutsik gelditzen baitziren.
- Maisu-maistrak (sasi-maistrak deiturikoak). Gehienetan titulu-gabeak izaten ziren eta kasu batzutan gazteleraren ezagupenik izaten ez zuten, hau ikastea eskatzen zitzaizkien. Apaiz eta mikelteek ere izaten zuten eskola-txiki hautako batzuen ardura¹⁸.
- Ikuskaria. Hauen lana ikuskaritza ezik, hainbat instituzioekin (udal, auzoko batza,...) bitartekaritza egitea izaten zen. Maisu-maistren esanak eta kexak jasotzen zituzten¹⁹.

Aldundiaren laguntza jaso zuten auzo-eskolak, 1928an

	Herria	Auzoa	Diru-laguntza
1	Antzuola	Uzarraga	100 pezeta
2	Azkoitia	Aizpurutxo	500 pezeta
3	Azpeitia	Orkaizagirre	150 pezeta
4	Azpeitia	Odría	150 pezeta
5	Aia	Altzola	350 pezeta
6	Aia	Urdaneta	300 pezeta
7	Zestoa	Lasao	500 pezeta
8	Ezkio	Santa Luzia	500 pezeta
9	Elgoibar	San Lorenzo	500 pezeta

18. GAN.(Tolosa)(JD IT 1457,2). Landa-auzoetako hezkuntzaz hitz egiterakoan ezin dugu ahaztu ere mikelteen eragina. Hauen kargu egon baitziren 1924tik 1936ra bitartean hainbat mendi-eskola. 1924an jakin badakigu Urkarregi eta Kanpazar izeneko eskolak jadanik martxan zeudela mikelteen zuzendaritzapean. Hauen emaitzak onak izanik, zera eskatu zuten, honelako beste 14 eskola irekitzea, eskolarik gabe zeuden 448 ikaslek jaso ahal izateko irakaskuntza. 1927an mikelteek honako eskola hauen ardura zuten: Kanpazar, Urkarregi, Saturraran, Otzaurte eta Endarlaza.

19. 1928.10.01 Gipuzkoako Aldundiaren batzaraldiko akta.

	Herria	Auzoa	Diru-laguntza
10	Elgoibar	San Pedro	500 pezeta
11	Getaria	Meaga	100 pezeta
12	Getaria	Azkizu	750 pezeta
13	Legazpi	Telleriarte	500 pezeta
14	Legazpi	Brinkola	750 pezeta
15	Mutriku	Ibiri	200 pezeta
16	Mutriku	Olatz	350 pezeta
17	Mutriku	Astigarribia	250 pezeta
18	Oñati	Uribarri-barren	250 pezeta
19	Oñati	Uribarri-garaia	200 pezeta
20	Oñati	Olabarrieta	250 pezeta
21	Oñati	Urrexola	250 pezeta
22	Oñati	Narria	250 pezeta
23	Errezil	Ibarbia	300 pezeta
24	Errezil	Erdoizta	300 pezeta
25	Donostia	Herrera	1500 pezeta
26	Zumarraga	Aginagako Martin Deuna	500 pezeta
	DENERA		8.750 pezeta

Errepublikarekin, hezkuntzaren egoera eta eskolarizazioa hedatzeko haize berriak etorri ziren. Honen eraginez bailaretako-eskolen kopurua ugaritu egin zen eta ematen zitzaizkion laguntzak ere bai. Diru laguntzak berarekin ekarri zuen baita ematen zen hezkuntza kontrolatu nahia. Honela Diputazioko Hezkuntza Komisioaren ardurapean zegoen ikuskaritzak, urtero jarraipena egiteari ekin zion –orain arte horrelakorik ez zen egiten– eta honen iritziaren arabera zehazten hasi ziren eman beharreko diru laguntzak.

1932an 66 eskola izan ziren Aldundiaren diru laguntza jasotakoan²⁰. Errepublikak, lehen esan bezala, hezkuntzari berrikuntza ekarri zion, eta testuinguru honetan kokatu beharko genuke Gipuzkoako Auzo-eskola proiektuari emango dion bultzakada, proiektua martxan jarritz eta hainbat eskola berri eraikiz. Auzo-

20. Bailaretako-eskolen egoera aztertzeko argigarriak dira ikuskaritzak urte hauetan idatziriko txostenak hots 1932,1933,1934,1935 urteetakoak. GAN, Tolosa. JD ITF 1460/2054-2055-2056-2057.

eskolen proiektua 1933an martxan jarri arren, eskola mota biak izango dira osagarri, auzo-eskolak garatu bitartean ezinbestekoak baitzen bailaretako-eskolen ekimena.

3. GIPUZKOAKO ALDUNDIAREN AUZO-ESKOLAK

3.1. 1930ko Aldundiaren auzo-eskolen aurreproiektua

Bailaretako landa-eskola txikien sarea gainditu eta hobeagotu beharra ezinbesteko erronka izanik, 1930an Gipuzkoako Aldundiko Hezkuntza Komisioak (abenduaren 12ko batzarrean), Auzo-eskolen Sorrera, Egituraketa eta Administrazioa Proiektua onartu zuen. Proiektu honek, Bizkaiko Auzo-eskolak erreferentzi izanik, eskola antolaketa berri bat proposatzen zuen, eskola probintzialak. Proiektu honek landa-auzoetan eskolaratzea eta alfabetizazioa bultzatu eta eskola berriak irekitzea zuen helburu, garaiko pedagogiak eskatzen zituen egokitasun eta baliabide oinarrizkoekin, eta ahalik eta kostu txikienean. Proiektuaren bultzatzaile nagusia, Aldundiko Hezkuntza Komisioa izan arren, proiektu honen egituraketan kontutan hartzeko da SEV-EI-ko hainbait lankideek ekarpena, Villalonga jaunarena bereziki; urte horretan Julian Elorzaren zen Gipuzkoako Aldundiaren Lehendakaria²¹. 1930ean onartutako Gipuzkoako Auzo-Eskolen proiektuak honako bereizgarriak zituen²²:

- a.- Eskolen eraikuntzari buruz, bost urtetan 100 auzo-eskola eraikitzea zen haserako asmoa. Ardurak eta kostuak banatzerakoan, udalek hartzen zuten zama handiena.
- b.- Pertsonala. Lehiaketa publiko bidez aukeratua izan behar zuen. Betebeharreko baldintza, lehen hezkuntzako maistra titulua izatea eta 20 urte baino gehiago maisuen kasuan, maistra izanez gero 18 baino gehiago²³. Euskararen gaitasun froga pasa beharra zegoen.
- c.- Ikuskaritza. Aldundiak jarritako ikuskaritzaz aparte herrietan ere talde eragile bat osatzea proposatzen zen. Taldea alkateak, auzoko erretoreak, osagileak eta gurasoen artean aukeratutako hiru gurasoek osatuko lukete. Bere eginkizuna informatzailea, bai pedagogia eta bai osasun aldetik.
- d.- Antolakuntza. Ikasleei dagokionez: eskola unitarioak eta bikoitzak izango zirela aipatzen zen. Ikasleak onartzeko adina 6-13 urte bitartekoak.

21. Julian de Elorza, azpeitiarra, euskal politikan eragin handiko gizona izan zen. 1911n eta 1919an bitartean Aldundiko diputatu eta 1919tik 1924ra bitartean Aldundiko Lehendakaria izandakoa. Beste langintza askoren artean, Euskal Ikaskuntzaren Batzarretan eta Euskal Estatutuaren Proiektuaren idazketan parte hartu zuen. Donostian hil zen 1964-I-29.

22. 1930.11.12. Gipuzkoako Aldundiaren batzaraldiko akta: "Proyecto de Bases para la construcción de escuelas rurales".

23. Baldintza hauek egokitu egingo dira eta 1932an, 22 urte eta 20 urte izango da gutxiengo adina maisu eta maistrentzat.

Eskolako ordutegia, sei ordukoa. Eskola motak sailkatzerakoan ere, hiru barruti ezberdin kontutan hartzen ziren: nekazal barrutia (zabalena eta ikasle gehien hartzen zituena), industrialia eta itsasertzekoa. Hau hala aipatu arren praktikan ez zen nabarmendu banaketa hau.

- e.- Gaiak. Honako gai hauek aipatzen ziren: Heziketa moral eta erlijiosoak; Irakurketa eta Idazketa; Aritmetika eta Geometria; Urbanitatea eta Higiena; Geografia eta Historia; Gaztelerazko Gramatika. Kontutan hartzen ziren baita Marrazketa eta Hiritartasun eta Zuzenbidea²⁴. Heziketa fisikoari eta herriko dantzei ere garrantzia ematea proposatzen zen. Musikak bere lekua zuen, solfeoa eta koroa osatuz eta abesti herrikoari eta erlijiosoak abestuz.
- f.- Mailakatea. Irakaskuntza mailakatuak proposatzen da: oinarrizkoa, erdi-mailakoa eta goi-mailakoa.
- g.- Hizkuntza. Nekazal eskualdeetan, euskaraz soilik hitz egiten zen lekuetan euskaraz ematea proposatzen da, haurrari gazteleraren lehen urratsetan bidea erakutsiz. Eskualde mistoetan, irakaskuntza gazteleraz proposatzen da, euskara maisuak egoki ikusten duenean erabiliz.
- h.- Erlijioa. Herriko erretoreari ahalmena ematen zaio eskolako irakaskuntza erlijioa eta morala ikuskatzeko.

3.2. 1931-1936. Proiektuaren garapena

Proiektu honek Aldundiaren onespena jaso zuen. Denek ikusten zuten ekarpen izugarria izan zezakeela: maisu probintzialak, eskolak Aldundiaren kontrolpean; maisu euskaldunak, oposaketetako baldintzetan euskararen derrigortasuna... Baina ez dugu ahaztu behar irakasleriaren eta Ikuskaritzaren kontrola edukiz, eskolaratzea ez ezik beste asmo batzuk bazituela Aldundiak, hots, landa-auzoetako euskaldunen heziketa kontrolatu nahi zuen; argi ikusten baitzuen hezkuntzak zuen garrantzia, ongi ohartzen baitzen bertako ohitura eta tradizioa galtzen ari zirela maisu erdaldunak ezarri. Baina ia berehala, Espainiar Estatuan aldaketa politiko nabarmenak eman ziren. 1931ko apirilak 14ean Errepublika ezarri zen eta Aldundiko agintea aldatu arren agintari berriek ez zioten bizkar eman asmo hauei eta orain arte paperetan hainbat aldiz aipatutakoari bultzada handia eman zioten.

Lehen esan bezala proiektuaren xedea eskolarik gabeko auzoetara iristea zen eta bertako haur euskaldunei hezkuntza euskaraz eta maila pedagogiko aurrerakoian ematea. Eskolak planta bakarreko eraikuntzak ziren, lorategi edo baratzearekin. Eskola bikoitza eraikitzen zenean, neska eta mutilen arteko bereizketa ongi markatua izaten zen: bi frontoi, bi sukalde...

24. Gai hauek garatzerakoan testu liburuen falta arazo nabarmena izango da.

Proiektu berria eta autonomia izanik, auzo-eskoletako orientabide pedagogikoak, Aldundiak ezartzen zituen eta hauek garatzeko arduraduna Aldundiaren Ikuskaria zen, Josefina Olóriz Arcelus andereñoa. Eskola hauetarako Ikuskaritzak zituen irizpidez, idatzizko ezer gutxi aurkitu dugu, bakarrik J. Olorizek Hezkuntza Komisioari egindako ekarpenak²⁵.

1. argazkia. Tolosako auzo-eskolaren inaugurazioa



Erdian J. Oloriz Ikuskaria

Auzo-eskolen hedapena ez zen erraza izan. Alde batetik diru arazoak, eta bestetik beraiei buruz zegoen errezeloa. Gipuzkoako auzo-eskolak garatzerakoan Bizkaiko auzo-eskolek izandako gorabeherak kezka sortzen zuten²⁶. Proiektu berriak zalantzak sortzen zituen euskal giroko hainbat pertsonaien artean, Aitzol gogor aritu zen eskola hauen aurka, gaztelera baserrietara zabaltzeko helburua

25. Gipuzkoako Aldundiko Administrazioako Artxibategia. (Donostia) 36 18 espediente. Bere irizkiak Hezkuntza Komisioarekin 1931.04.1 eguniko bileran azaltzen ditu.

26. ARRIEN BERROJAECHEVERRIA, G. (1987) *Educación y escuelas de Barriada en Bizkaia. (Escuela y Autonomía 1898-1936)*. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia. Lan hau da Bizkaiko auzo-eskolei buruz egin den lan osatuena.

zutela adieraziz. Kontutan hartzekoa da baita, El-SEVko Lehen Hezkuntzako komisiok Gipuzkoako Auzo-eskolei buruz emaniko iritziak²⁷:

Ez dugu ahaztu behar 1930an, Gipuzkoako Aldundia eta landa inguruneko herri gehienak eskuindarren eskuetan zeudela, eta haserako proiektua begi onez ikusi arren, II Errepublika jarri zenean. Herri batzutan ez zutela jaso espero adinako babesa, Errepublikaren babesean, elizaren bedeinkaziorik gabe sortzera zihoazen eskola berri hauek ez zuten denen bedeinkazioa. Heziketa lehentasun bihurtu eta eskola berrien eraikuntzari gogoz eutsi zion Errepublikak. Auzo-eskolei dagokionez, aurrez hasitako lana garatzen saiatu zen eta Aldundiko Gestora. Azpimarratu beharrekoa da Errepublika garaian, hezkuntzari eskainitako diru laguntzak aurreko urteetan eskainitakoak baino ugariagoak izan zirela, bai Lehen Hezkuntzan eta baita ere auzo eskola eta landa-eskoletan. Urte hauetan landa-inguruetako eskolei emaniko diru laguntzak (auzo-eskolen eraikuntza berriak, langileriaren soldadak...) 200.000 eta 300.000 pezeta artekoan izan zen, ordura arte jasotzen zen baino askoz gehiago.

Oparotasun honek ez zuen luze iraun eta 1936ko gerraren eraginez, botere aldaketarekin ondorioz, Diputazioak bere ahalmenetan murrizketak izan zituen eta honek eragina nabarmena izan zuen lehen hezkuntzan eta landa-auzoetako diru laguntzetan.

3.2.1. Eraikuntza berriak

Gipuzkoako Auzo-eskolen proiektua onartu eta gutxira, erregimen berrian, Instruzio Publikoko lehen Ministroak, Marcelo Domingok, hezkuntza politikaren oinarri berriak finkatu zituen, hots:

- Erljio askatasuna.
- Maisuaren lanaren duintasunaren errebindikazioa.
- Herrialde ezberdinen bereizgarriekiko errespetua.
- Eskolen kopura ugaltzea.

Heziketa lehentasun bihurtu eta eskola berrien eraikuntzari gogoz eutsi zion Errepublikak. Auzo-eskolei dagokionez, aurrez hasitako lana garatzen saiatu zen eta Aldundiko Gestora berriak Gipuzkoako udalak bultzatu zituen proiektu berri honen eragileak izan zitezten. Udal askok gogoz hartu zuten eskaintza eta berehala ausartu ziren eskola berriak eraikitzea, baina nahia eta gaitasuna ez zihozaz kasu askotan uztarri berean, udalen kargu baitzen solairua eta eraikuntzaren %65 kostua ordaintzea, eta hau diru askotxo zen udal gehienentzat diruz eskas ibiltzen baitziren. Dena dela, 17 udalerrri ausartu ziren eskola hauek eraikitzea.

27. 1931.04.16. SEV-El-k Gipuzkoako auzo-eskolei buruz eginitako gogoeta GAN, JD IT 1874.

2. argazkia. Legazpiko auzo-eskola



Lehen esan bezala proiektuaren xedea eskolarik gabeko auzoetara iristea zen eta bertako haur euskaldunei hezkuntza euskaraz eta maila pedagogiko aurrerakoian ematea. Eskola hauek, berriak eta planta bakarreko eraikuntzak ziren, lorategi edo baratzarekin. Eskola bikoitzak eraikitzen zirenean, neska eta mutilen arteko bereizketa ongi markatua izaten zen: bi frontoi, bi sukalde... Gerra etorri zenean honako eskola hauek zeuden martxan.

Herria	Lekua-Auzoa	Eraikuntzaren data
ZIZURKIL	Geltoki auzunea	1932
TOLOSA	Sta. Luzia	1933
TOLOSA	S. Blas	1933
LEZO	Lezo	1932
OIARTZUN	Gurutze	1932
HERNANI	Loidi	1932
ZUMAIA	S. Migel de Artadi	1933
LAZKAO	Lazkaomendi	1934
LEGAZPIA	Telleriarte	1932
BEASAIN	Arriaran	1932
OÑATI	Araotz	1933
GETARIA	Meagas	1934
EIBAR	Arrate	1934
EIBAR	Santa Kutz	1933
ARRASATE	Udala	1934

Tramitazioan zeudenak honakoak ziren: Eibar-Malzaga; Usurbil-Txikiardi; Hernani-Jauregui. Eta hauetaz gain, beste udalerrri eta eskola batzuk Aldundiaren auzo-eskolen plangintzan sartzeko asmoa adierazita zuten: Azkizu (Getaria), Ibarbia (Errezil), Ibirri (Mutriku).

3.2.2. Auzo-eskoletako irakasleak

Eraikuntza egokia izatea ezinbesteko baldintza bazen, ez zuen garrantzi gutxiago irakasleriak. Eztabaida gehiegitxo sortzen ari zen maisu erdaldun eta fede gutxiko gaiak, Beraz, eskola berrietako irakasleak derrigorrez tituluduna eta euskaldunak (eta fededuna) izan behar zuen, profil honek hobeago erantzuten baitzion kalitatezko hezkuntza eta une horretan agintean zeuden interesei.

Baldintza hauen kontutan izanik, 1932an Gipuzkoako auzo-eskoletako irakasle probintziala izateko aurreneko oposaketak egin ziren, 15 maistra eta 5 maisuen lanpostua osatzeko. Oposaketa hauetan euskarako frogak gainditzea ezinbesteko baldintza zen ondorengo frogak egiteko²⁸. Froga gainditutakoekin lanpostuak osatzeko zerrenda osatu zen, baina irakasleek postuaren jabe izateko lanean bost urte pasa beharra zuten.

Lan baldintza onak zituzten. Soldadari dagokionez, beste maisuak baino soldata hobeagoa zuten, 4.000 pezetakoa (nazionaletan 3.000 irabazten zen) eta igoerak eta erretiro eskubideak Diputazioko arauen arabera. Eskola nazionaletan etxea eskaintzen bazitzairen ere, maisu-maistra hauek ez zuten eskubiderik etxebizitzarako ezta arrazoi honegatik diru saririk jasotzeko. Lanpostu eskakizunari buruz esan beharra dago oso egokia izan zela, beste eskoletan baino abantaila hobeagoak baitzituen. Desabantaila bakarra zera zen auzo hauek gehienetan herri gunetatik aparte egoten zirela.

Aurreneko oposaketan honako eskola banaketa eman zen:

Maistrak	Eskolaren kokapena
Marina Fernández	Villabona-Zizurkil
Concepción Garín	Tolosa - Santa Luzia
Purificación Iturrioz	Tolosa - Santa Luzia
María Luisa Olano	Tolosa San Blas
Victoriana Igarzábal	Lezo
Delfina Pérez	Oiartzun - Ergoien
Dionisia Iturrioz	Hernani Loidi
Maria Altuna	Oiartzun Ergoien
Ana Arruabarrena	Zumaia. San Migel de Artadi

28. 1932.09.8. Gipuzkoako Aldundiko batzaraldietako akta.

Maistrak	Eskolaren kokapena
Engracia Larrarte	Tolosa San Blas
Consolación Beldarrain	Lazkao - Lazkaomendi
Sebastiana Acutain	Legazpia - Brinkola-Telleriarte
Francisca Astigarraga	Legazpia - Brinkola-Telleriarte
M ^a Luisa Arrillaga	Beasain - Arriaran
Fermina Garmendia	Oñati - Araotz
Juan Imaz	Villabona - Zizurkil

Beste bi maistrak erreklamazioa jarri zuten, eta ezbai askoren ondoren hauen eskakizunak onartuak izan ziren²⁹. Oposaketetara aurkeztutakoak 26 maisu-maistra izan ziren, ia denak gipuzkoarrak eta bat nafarra. Bigarren oposaketa 1935. urtean izan zen, aurkeztutakoen kopurua ez dakigun arren, esan genezake deialdiak arrakasta handia izan zuela eta 44 irakasleek gairiditu zutelako euskarako frogara. Oposaketa honetan 10 maisu-maistrentzat irekia izanik, 11. zegoen maisua ere onartua izan zen. Oposaketan aukeratutako honako hauek izan ziren: Antonia Altuna Erkizia, María del Carmen Sasiain Garmendia, José Ignacio Aranburu Agirre, Magdalena Aierbe Etxarri, Carmen Otaegi Erraskin, Josefa Agirre Azurmendi, María Luisa Arrizabalaga Dorronsoro, Josefa Gogorza San Sebastián, Francisca Torregerai Gurrutxaga, Mercedes Dorronsoro, Telesforo Galparsoro Begiristain.

Kontutan hartzekoa da aukeratutako maistra ia gehienak Donostiako Teresianen Akademia famatutik pasatutakoak zirela, erlijio ordenen artean izen handikoak baitzen P. Povedak sortutako ordena. Ez dugu ahaztu behar ezta, garai hartan Gipuzkoan pentsaera erlijiosoak zuen indarra eta hedapena.

Aitzin, jauntxokeria aipatu dugunez, esan beharra dago urte hauetan, izaten ziren hauteskundeetan, lanpostu publikoak aukeratzeko horrelako jokaeran hedatuak zeudela, eta auzo-eskoletako irakasleriaren aukeraketa egiterakoan ere iritsi zela honen itzala. Ildo honetan esan behar da, irakasleriaren koordinaketa eta formazioa emateko ezinbestekoa zen Ikuskaritzaren aukeraketan ere argi-ilunak izan zirela (aukeraketarako eman zen prozedura eta lanpostu honetarako euskara jakin beharra izan ziren eztabaidaren gai nagusia. Liskar luzeren ondoren, Josefina Oloriz andereño, euskara menderatzen ez zuen andereñoa, aukeratua izan zen Gipuzkoako Auzo-Eskoletako Ikuskari³⁰), itzal beltzak ere luzatu ziren baita maisu-maistren 2. oposaketara.

Baina jokaera hauek ez dute iluntzen Aldundiak emandako urrats handia, maisu-maistra prestuak, tituludunak eta euskaldunak aukeratzeko.

29. 1933.05.23 Gipuzkoako Aldundiaren batzarraldietako akta. Bi lan postu hauek eztabaida luzea sortu zuten. Gipuzkoako Aldundiko Administrazioiko Artxibategia.(Donostia) R-251/5, 1931-1934.

30. 1931.03.18 Gipuzkoako Aldundiko batzarraldietako akta. Eztabaidetan Arbide Jauna izan zer bereziki, euskara jakin beharra defendatzen zuena, baina bere proposamenak ez zuen babesik izan.

3.2.3. Orientabide pedagogikoak

Proiektu berritzaile eta autonomoa izanik, auzo-eskoletako orientabide pedagogikoak, Aldundiak ezartzen zituen eta hauek garatzeko arduraduna Ikuskaria zen, Josefina Oloriz Arzelus anderea. Eskola hauetarako Ikuskaritzak zituen irizpideaz, idatzizko ezer gutxi aurkitu dugu, bakarrik J. Olorizek Hezkuntza Komisioari egindako ekarpenak. Honen esanetan ahozko komunikazioaren garrantzia azpimarratu beharra zegoen eta testu liburuak bigarren mailan jartzen bazituen ere, hauek erabiltzerakoan garaiko metodologia aurrerakoien ekarpenen garrantzia kontutan hartu beharra zegoela azpimarratzen zuen³¹. Eskoletako eguneroko jardunaldiaz zera esan genezake:

Azalpenak gehienetan euskaraz ematen ziren, hasieran behintzat, ikasleek euskaldun elebakarrak baitziren gehienetan. Dena dela testu liburuak baldintzatzen zuen eman beharreko programa eta hauek gehienetan gaztelera-koak izaten ziren.

Irakasten ziren gaiak honakoak ziren: Lenguaje; Irakurketa, idazketa eta gramatika; Aritmetika eta Geometria; Kalkulua eta buruketak; Geografia, lurraldearen deskribapena eginez eta Historia; Natur Zientziak. Gai hauek apunte bidez, ahozko azalpenen bidez ematen ziren gehienetan. Kontutan hartzekoa da baita, nekazal auzoetan egon arren, nekazaritzako ikaspedeei ez zitzaiola garrantzi nabarmenik eman, nahiz eta hasieran horrelako asmoak izan.

Testu liburuei buruz esan, euskarazko liburuen eskasia nabarmena zela. Proiektua martxan jarri aurretik, 1928an, Aldundiko Hezkuntza Komisioak, Euskalerraren alde aldezkaritari testu liburuak sortzeko prozedura bideratzea eskaini zion, eta horrela. Elkarte honek proposamena aurrera eramateko lehiaketa bat antolatatu zuen³². Lehiaketa arlo gehienetara zabaldua izan arren, bakarrik honako liburu hauek aukeratu, saritu zituen: euskarazko Nekazaritza eta gaztelera-ko "Silabario" eta "Texto de Agricultura".

1933an, auzo-eskolak eraiki ondoren, liburuen beharra nabarmena izanik eta ikusiz hainbat idazleek beren lanak aurkezten zituztela, eskola hauetarako Aldundiak, 1933ko apirilaren 16an, liburuak prestatzeko deialdi publikoa egin zuen. Hezkuntza Komisioak testu liburuen azterketarako honako pertsonai ezagun hauek aukeratu zituen: Altube, Lekuona eta J. Garmendia. Aipatu beharra dago, garai honetan eskoletan euskarazko liburu erabilienak hauek zirela: Dotrina, Katona, Txomin irakasle, Hernaniko Permin Iturrioz Telleriarena, Xabierto, Ixaka Lopez de Mendizabalena liburu famatua, Sabin euskaldun, Bernardo Estornés Lasak, SEV-Elkoak, egina eta Nekazaritzako irakurraldiak, sinatu gabea eta Aldundiak argitaratua.

Aldundiak, liburuak ezik eskolarako beharrezkoak ziren hainbat material pedagogiko, garaiko azken proposamen pedagogikoekin bat zetozenak, eskaintzen zituen (barometro, higrometro, termometro, pisuak...). Orain arte horrelako

31. Gipuzkoako Aldundiko Administrazioako Artxibategia. (Donostia) 36 18 expediente. Bere irizkiak Hezkuntza Komisioarekin 1931ko apirilaren 1ean eginiko bilera azaltzen ditu.

32. GAN Tolosa, JD IT 784,1. "Euskalerraren Alde" Nuestro VII Certamen. (1928).

materiala nekazal auzo eta bailaretako-eskoletan inoiz ikusi gabea zen. Eta aurrerapen hauen zer esana zuten eskola ematerakoan, metodologia berriei, ekarpen aurrerakoiei, bidea irekitzen ari baitziren.

Auzo-eskoletara joatea derrigorrezkoa izaten zen eta joaten zirenen zerrenda maisuak jaso eta udalari ematen zion. Eskola hauetan bazkaltzeko kantinek egoten ziren, bakoitzak bere janaria berotzeko aukerarekin.

Ezin dugu aipatu gabe utzi elizak izan zuen eragina eta indarra. Nahiz eta dotrina emateko Errepublikak lege aldetik arazoak jarri, Gipuzkoako nekazal-eskoletako ikasle denak dotrina jasotzen zuten, eskola bertan ez bazen, inguruko baserri edo mandioetan. Eskolan posible ez zenean herriko apaizak hartzen zuten dotrinaren ardura.

3.3. Aldundiko auzo-eskolen proiektuari buruzko iritzi kritikoak

Auzo-eskolen garapena ez zen xamurra izan. Alde batetik diru arazoak, eta bestetik beraien buruz zegoen errezeloa. Gipuzkoako auzo-eskolek Bizkaiko auzo-eskolen historia izan zuten erreferentzi, eta hauen gorabeherak kezka sortzen zuten. Proiektu handi izan arren aldaketa handiak jasandakoan ziren ideologia aldetik, hasera batetan (1921, Eleizalde Ikuskari izanik) espainiar eskuindarren erasoak jaso zuten, euskal nazionalismoaren eskola bezala batailatuta baitzituzten. Ondoren Liga Monarkikoak Aldundiko agintea hartu zuenean, eskola hauek norabidea aldatu egin zuten, euskararen erabilpena debekatuz, eta aberzaleen aldetik gaitzetsiak izan ziren³³. Horrengatik Gipuzkoan eskola hauek erakitzeak, hainbat kezka sortu zituen, eta hala azaldu ere bai euskal giroko hainbat pertsonaiek.

Zuen izen eta itzalagatik SEV-EI-ko Lehen Hezkuntzako Komizioak Gipuzkoako Auzo-eskolei buruz emaniko iritziak aipatuko dugu. Komizio honek Aldundiari igorritako idatzian honako hausnarketa egiten zuten Gipuzkoako Auzo-eskoletaz³⁴:

Komizio honek zioen, eskola hauetan hezkuntza edo formazio moralaz hutsune nabarmena ikusten zuela. Eduki aldetik "neutroa" zela zioen eta espiritualitatea eta giroa falta. Instrukzioa edo prestakuntza intelektualari buruz, dakigunetik abiatu behar zela eta hori osatu eta gehitzen saiatu. Euskal hezkuntzaren hobekuntzaz, SEV-EI-k zioen hizkuntza zela ondare baliotsuena. Eta hausnarketa hauek kontutan izanik, SEV-Elko Komizioak kontutan hartzeko esanez, honako ondorioak edo proposamenak gaineratzen zituen:

- 1.- Euskararen erabilera. Komizioak eskolak bi multzotan banatu zituen: gai guztiak euskaraz ematen zituzten eta gaztelera oinarritzko hizkuntza zutenak.

33. ARRIEN BERROJAECHERRIA, Gregorio. (1987) *Educación y escuelas de Barriada en Bizkaia. (Escuela y Autonomía 1898-1936)*. Bilbo : Bizkaiko Foru Aldundia. Lan hau da Bizkaiko auzo-eskolei buruz egindako lan osatuena.

34. 1931.04.16. SEV-EI-k Gipuzkoako auzo-eskolei buruz egindako hausnarketa GAN, Tolosa, JD IT 1874.

- 2.- Azterketak eta ikuskaritza. Azterketak, klaseak ematen ziren hizkuntza berean egitearen beharra ezin bestekoa ikusten zuen eta eskola euskaldunetan ikuskariak euskalduna izan beharko lukeela izan (Gipuzkoan gero ikusiko den bezala ikuskaria erdalduna aukeratuko da, Julian Elorza euskaltzalea eta Aldundiko lehendakariaren onespenezekin).
- 3.- Maisu-maistren formakuntza. Inguruneko errealitatea kontutan izanik formatu behar zuten.
- 4.- Curriculum. Bertako baloreak, hizkuntza, familia, antolakuntza... kontutan hartu beharra azpimarratzen zen.
- 5.- Irakasleen askatasuna. Hauen askatasuna behar zuten testu liburuen aukeraketan eta irakaskuntzan. Askatasun honek Ikuskaritzaren jarraipen eta orientazio zuzena behar zuen.
- 6.- Maisu-maistren errekonozimendua ere, lanaren neurriko izatea proposatzen zen.

Proposamen hauetan ikusten denez, euskal hizkuntzak eta bertako baloreak azpimarratzen ziren, 1919tik aurrera Eusko Ikaskuntzako Kongresuetan aldarrikatutakoarekin bat eginez.

Eskola hauekiko bere errezeloak azaldu zituenetako beste bat Jose Ariztimuño, Aitzol, izan zen. Aitzolek gogoan zuen Bizkaiko Auzo-eskoletan gertatutakoa. Bere iritziz eskola hauek, hasierako helburu abertzaleak bazterrean utzi eta, gaztelera hedatzen ari ziren Bizkaiko landa-inguruetan. Errepublikaren pentsaera liberalaz ere ez zen gehiegi fio (Ariztimuño, J., 1986):

El paso más serio y real en cuestión de enseñanza vasca se dio por la Diputación de Bizkaia, cuando en ella imperaba mayoría nacionalista (1918), con la creación de las escuelas de barriada, dirigidos por el gran renacentista Luis de Eleizalde, cuyos resultados hoy se han malogrado.

Desde la fecha más reciente, la Diputación de Guipúzcoa va estableciendo, también, las escuelas rurales, mas la enseñanza euskeldun que en ellas se da es deficientísima, debida en gran parte a la manifiesta ineptitud de quienes están encargados de dirigirlos y orientarlos, ya que desconocen el idioma, vehículo de la enseñanza para los pobres niños de las aldeas.

Hace un par de años se ha decidido el nacionalismo vasco a tomar, con cierto calor, la cuestión de la enseñanza en euskera, fundando el "Eusko-Ikastola Batza", Federación de Escuelas Vascas, que hoy está integrada por unas 15 escuelas primarias y un colegio de Segunda Enseñanza.

Ez dugu ahaztu behar euskalduntasuna, abertzaletasuna eta erlijio katolikoa eskutik zihoazela, gerra aurreko abertzaleen pentsamenduan. Kontutan hartu behar baita, 1930ean Gipuzkoako Aldundia eta herri gehienak eskuindarren eskuetan zeudela.

3.4. 1936ko Gerra. Hezkuntza proiektu aurrerakoien deuseztapena

1936ko gerra hasi eta berehala ia Gipuzkoa osoa nazionalen eskuetan erori zen eta hauek hezkuntza Mugimenduaren printzipioaren arabera antolatu zuten. Mugimenduak “Eskola Berria” antolatzeari ekin zion eta lehen eginkizuna ideia ezberdinak bateratzea, homogeneizazioa, izan zen. Espainiar nazionaltasuna eta elizaren errebindikazioak bere gain hartzeak izango dira pentsaera honen ikur nagusiak. Euren pentsaera inposatzeko lehen urratsa errepublikar hezkuntzarekin zerikusi zuen dena deuseztea izan zen. Aldaketa honetarako maisu-maistren jarduera ezinbestekoa zenez. 1936ko abuztuan alkateei agindu zitzaion herriko maisuen zaintza eta jarraipenaren ardura. Mugimenduaren pentsaeraren arabera jokatu beharra zegoenez, bi izan ziren zorrotz zigortutako delituak: errepublikar zalea izatea eta espainiar nazionaltasunarekin bat ez etortzea (honekin euskaldunen eta katalanen abertzaletasuna zigortu nahi zen).

Ikasgai eta testu liburuei dagokionez, aldaketak sakonak izan ziren eskola guztietan Mugimenduaren pentsarekin bat zetozen liburu berriak ezarri ziren, eta honela, 1936ko irailean derrigortzat ezarri zen Erliñoaren hezkuntza eta baita Historia Sakratuarena. Jarraian ere bereko erabaki ugari hartu ziren. Hizkuntzari dagokionez, hizkuntzaren bateratzea ematen da, herrialde guztietan gazteleraren derrigortasuna ezarri eta lekuko hizkuntzak debekatuz (Euskal Herrian euskarenen erabilera debekatuz).

1936ko udazkenaren aldera ia Gipuzkoa osoa tropa nazionalen esku egonik, Aldundiaren auzo-eskola eta bailaretako-eskola gehienek eskola ematen jarraitu zuten, gerrak ahalbideratzen zuen lekuetan. Ez dugu ahaztu behar ezta urte hauetan maisu maistra dezente baztertu eta zigortu zituztela (bai auzo eta baita bailaretako-eskoletakoak).

Lehen egunetako errepresio bortitzaren ondoren (kartzela, erbesteratzea, depurazioa...) Erregimen Berriaren antolaketa etorri zen, maisu-maistren heziketa eta berrantolaketari lehentasuna emanez. Gerra hasi eta berehala, Junta de Defensa Nacionalak zabalduetako xedapenak erreferenteak izango dira hezkuntza antolatzerakoan (1936ko irailaren 4ko Agindua, irailaren 13ko Agindua eta irailaren 22ko eta 26ko Aginduak).

Hezkuntza kontrolatzeko, agintari berriek berehala antolatu zituzten hitzaldi, bilera eta batzarrak. Hauen artean aipatzekoa da, 1937ko urtarrilaren 7tik 9ra, Gipuzkoako eta Bizkaiko Gobernu Zibil Orokorrak Donostian antolatu zuen Asamblea Patriótica Guipuzcoana de Orientación Docente Jardunaldia. Batzar horretako aurkezpeneko hitzak dira ondorengoak:

Estéril resultaría el cruento sacrificio ofrendado por nuestro valiente Ejército Nacional para liberar la Patria española del ponzoñoso virus que la venía asfixiando, si en estos momentos de reconstrucción no nos cuidásemos meticulosamente en retaguardia de resolver el interesante y urgentísimo problema de la formación de las nuevas generaciones españolas que han de constituir la Patria del mañana.

Debe de ser en la hora de hoy tema preferente de nuestra actuación el contar con un personal docente totalmente identificado con los altos ideales encarna-

dos en este Glorioso Movimiento Salvador de España plenamente capacitado y fervorosa y patrióticamente enardecido en su amor a la Patria que pueda desterrar para siempre de las conciencias infantiles aquellos burdos errores sembrados criminalmente en sus almas por el laicismo y el separatismo. Hay que moldear el alma de los niños en las verdaderas y sanas doctrinas de la Religión Católica y de la moral cristiana e inculcar en sus pechos un ardiente amor a la Patria española y un abnegado espíritu de sacrificio capaz de ofrendarle gustoso con años y desinterés sin límites hasta su propia sangre y su vida si tal sacrificio les fuera exigido.

Aldaketa administratiboa berehala etorri zen, 1938ko apirilak 18ko Aginduan, eta Gipuzkoako Aldundiko auzo-eskolak Espainiako Eskola Nazional bihurtu ziren. Aldundiaren babesean egotetik, Estatuaren menpe egotera pasatuz; bertako langileak, maisu-maistrak, Diputazioaren langile izatetik, nazionalak izatera pasatu ziren.

Aldundiko zenbait partaide berehala jabetu ziren emandako urratsak ez ziola mesederik ekarri bailaretako eskolaratzeari. Arazoak berean jarraitzen baitzuen eta konponbidea faltan. Honela, 1940an Aldundiko hainbat diputatuek, maisu-maistra berrien izaera salatu zuten (kanpotik etorritako maisu fedegabeak, euskararen berri ez zutenak). Kontutan izan behar da urte hoietan Diputazioaren buru, karlismo-foruzalearekin zerikusi duten pertsonak zeudela (Jose Eizagirre, Fernando Aranburu, Elias Querejeta), eta hauen pentsaera, fededun eta neurri batean foruzale eta euskaltzaleak zela.

Maestros separados de sus cargos por sus antecedentes políticos, han venido a nuestros pueblos, profundamente religiosos, que hablan un idioma desconocido para quienes no han nacido entre nosotros y muchas veces, desgraciadamente muchísimas veces, han venido a pueblos en donde existe un cura virtuoso, que por haber aceptado el veneno del separatismo, acaso se halle también castigado. Nadie como nosotros sabe lo que esto significa y las consecuencias que esto acarrea³⁵.

Talde honek, lehen Diputazioak aurrera emandako Proiektuari eusteko nahia azalduko du, proposatuz auzo-eskolen proiektuan falta ziren 80 eskola berri eraikitzea eta horretarako 3.650.000 pezetako aurrekontua azalduz. Diputatu hauek argi zeukaten horrelako plangintza aurrera eramateko ezinbestekoa zela maisu-maistrak aukeratzeko eskumena izatea, hauen eskutan baitzegoen hezkuntzaren gakoa. Honetarako ahalmenik ez izateak ia dena mugatzen eta baldintzatzen zuen. Proposaturiko aukera bat zera zen, Estatuko zerrendatik euskaldunak eta bertakoak aukeratzeko, baina hau ere ez zen posible. Ondorioz, Komisioaren irizpidea zera izan zen, maisu-maistren aukeraketan eskumen aukerarik ez izan bitartean, Aldundiak eraikuntza berririk ez egitea. Dena dela, proposamen hau "Ministerio de Educación Nacional"-era bidali zuten, egoera azalduz eta berari eskatuz arazoari eusteko edo bestela Diputazioari ahalmenak emateko. Baina

35. Dictamen de la Comisión de Fomento, Caminos y Obras, presentada en la sesión de la Diputación de Gipuzkoa 15.04.1940.

eskakizun hauek ez zuten erantzun izan, agintean jarritakoak ez zuten ezer jakin nahi maisu euskaldunez eta Aldundiaren eskumenez ere. Aldundiak zituen eskumenak galdurik eta eskuratzeko itxaropenik gabe, garbi ikusi zuen 1941. urtean beste inolako planik ez zegoela bideratzerik.

Gipuzkoako Auzo-eskolen proiektuaz bertan behera gelditu zen 1938an, oihartzun handirik gabe. Proiektuaren iraupena laburrak eta zuen aukerarik eman behar adinako garapenik izateko, dena dela ahalbideratu zuen 21 eskola eraikitzeke. Eredu honek balio izan digu erakusteko posible izan zela Gipuzkoako landa-auzoetako hezkuntza beste bide batzuetatik ematea, bertako hizkuntza eta kultura errespetatuz. Baliabideak eta ideiak izan arren erabaki politikoek baldintzatu zuten honen garapena eta deuseztatpena.

1936an martxan zeuden eskola ugari diru murrizketak izan zituzten eta maisu-maistra ugari zigortuak izan ziren, erregimen berriak ez zituelako gogoko.

1936an martxan zeuden bailaretako eskola-txikiak³⁶

	Udalerri	Auzoa	Maisu-maistra	Diru-laguntza
1	Antzuola	Uzarraga	Jesusa Michelena	400 pezeta
2	Aizarnazabal	Zubi-aldea	Jose Maria Aguirre	500 pezeta
3	Azkoitia	Ssnts kutxz	Trino de Uria	500 pezeta
4	Azkoitia	Madariaga	Jose Gamendia	200 pezeta
5	Azkoitia	Aizpurutxo	Joaquin Iturrioz (c)	450 pezeta
6	Azkoitia	Martirieta	Salustiano Echezarreta	350 pezeta
7	Azkoitia	Izagirretorre	Clara Echaniz Beristaín	250 pezeta
8	Azpeitia	Orkaizagirre	Antonia Alberdi	200 pezeta
9	Azpeitia	Odría	–	150 pezeta
10	Azpeitia	Elosiaga	Felisa Lucas Cuende	400 pezeta
11	Azpeitia	Elosiaga-hehea	Dolores Rodríguez Cendoya	150 pezeta
12	Azpeitia	Olatz	Jesusa Aranguren	750 pezeta
13	Aia	Altzola	Eugenio Camarero	350 pezeta
14	Aia	Andatza	Pilar Iruretagoiena	250 pezeta
15	Aia	Urdaneta	José Roteta	350 pezeta
16	Zegama	San Pedro	Maria Mora	250 pezeta
17	Aretxabaleta	Goronaeta	Genaro Unda	600 pezeta

36.1935.12.19. Gipuzkoako Aldundiaren batzarralediko akta.

	Udalerrri	Auzoa	Maisu-maistra	Diru-laguntza
18	Aretxabaleta	Bedoña	Fermín Fernández Arroyabe	600 pezeta
19	Zestoa	Lasao	Justo Elorza Oyarzabal	500 pezeta
20	Zestoa	Iraeta	Carmen Gorriti	250 pezeta
21	Zestoa	Arrona	Isabel Lete	250 pezeta
22	Deba	Elorriaga	Ignacia Aldasoro	750 pezeta
23	Deba	Mardari	Maria Aguinagalde	500 pezeta
24	Deba	Arbiskua	Teresa Salegui	500 pezeta
25	Deba	Lastur	Maria Domenecg	750 pezeta
26	Deba	Itsaspe	Maria Antonia Beristain	700 pezeta
27	Elgoibar	San Migel	Antonia Ojanguren	500 pezeta
28	Elgoibar	San Lorenzo	Maria Cristina Garcia	1.000 pezeta
29	Elgoibar	San Pedro	Natalia Arrien	500 pezeta
30	Eskoriatza	Gellao	Antonia Ojanguren	600 pezeta
31	Eskoriatza	Apozaga	Maria Cristina Garcia	250 pezeta
32	Getaria	Askizu	Máxima Ortega Hablaos	750 pezeta
33	Getaria	Meagas	Maria Agustina Garate	150 pezeta
34	Hernani	Jauregi	Juana Setien Cortajarena	750 pezeta
35	Hernani	Pagoaga	Dionisia Liceaga	300 pezeta
36	Itsasondo	Urkia	José Zubizarreta	750 pezeta
37	Lezo	Gaintxurizketa	Concepción Almandoz	250 pezeta
38	Mutriku	Ibiri	Josefa Maiz	200 pezeta
39	Mutriku	Olatz	Maria Gurrutxaga	400 pezeta
40	Mutriku	Mizkia	Maria Aranceta	400 pezeta
41	Mutriku	Astigarribia	Pedro Maria Usabiaga	200 pezeta
42	Oñati	Uribarri-behea	Felipe Jausoro Uriarte	300 pezeta
43	Oñati	Uribarri-garaia	Pedro Anduaga	250 pezeta
44	Oñati	Olabarrieta	Simon Belategui	300 pezeta
45	Oñati	Narria	Felix Lizarralde	250 pezeta
46	Oñati	Urrexola	Domingo Arrazola	300 pezeta
47	Oñati	Berezaio	Miguel Elorza	450 pezeta
48	Errezil	Erdoizta	Hermenegilda Aldalur	600 pezeta

	Udalerri	Auzoa	Maisu-maistra	Diru-laguntza
49	Errezil	Etumeta	Jose Muguruza	600 pezeta
50	Errezil	Arzalluz	Juana Clara Uzcudun	600 pezeta
51	Donostia	Aiete	Cecilio Aguirre	400 pezeta
52	Donostia	Errekalde	Silveira Morales	1.000 pezeta
53	Donostia	Loiola	Petra Iguaran	1.000 pezeta
54	Segura	Ursuaran	Francisco Arsuaga	350 pezeta
55	Tolosa	Urkizu	Francisco Segurola	500 pezeta
56	Usurbil	San Esteban	Gertrudis Urquia	350 pezeta
57	Usurbil	Txikiendi	Pilar Zubia	1.000 pezeta
58	Usurbil	Aginaga	Victoria Pagola	350 pezeta
59	Usurbil	Arratzain	Librada Aramburu	350 pezeta
60	Urnieta	Goiburu	Angela Arrue	500 pezeta
61	Urnieta	Oria	Maria Astrain	750 pezeta
62	Zumarraga	S.M. Aginaga	Jose Luis Arrazola	350 pezeta
63	Zumarraga	Leturiondo	Julita Arana	250 pezeta
64	Zumaia	Oikia	Damiana Añorga	750 pezeta
66	Elgoibar	Urkarregi	Mikeleten Puestoa	500 pezeta
67	Zegama	Otsaurte	Mikeleten Puestoa	500 pezeta
68	Tolosa	Urto	Mikeleten Puestoa	500 pezeta
69	Irun	Endarlatza	Mikeleten Puestoa	500 pezeta
			DENERA	31.800 pezeta

3. argazkia. Azkoitiko Martirieta bailarako eskola



4. LANDA-ESKOLA TXIKIAK ETA ESKOLA NAZIONALEN EGOERA, ESPAINIKO GERRA ZIBILAREN OSTEAN

Beste proiekturik aurreikusten ez zenenez landa-inguruneko hezkiketa garatzeko Udalek, auzotarrek eta Diputazioak ahal zuten moduan jarraitu zuen bailaretako-eskolei laguntza eskaintzen³⁷:

Landa-eskolak jasotako diru laguntzak

Urtea	Diru-laguntza pezetak	Eskola kopurua
1940	18.350	45
1941	23.750	-
1943	29.590	64
1944	25.950	-
1945	30.000	-
1946	28.300	70
1947	29.300	62
1948	30.250	-
1949	32.600	80

Datu hauek argi adierazten digute gerra ondorengo urtetan landa-auzoetako alfabetizazio eta eskolaketa gainditu gabeko erronka izan zela.

Landa-eskola hauen zeregina ezinbestekoa izan arren baserrietako seme-alabak eskolaratzeko orduan, bere eragina ere murrizten joan zen 1950etik aurrera. Eskola nazional berriak irekitzen ari ziren Gipuzkoa guztian eta hauen itzalera, maisu-maistra erdaldun ugari etorri ziren. Auzo hauetara etortzen ziren maistrei buruz esan beharra dago, baserri hauetako egoera ikusi ondoren askok berehala eskatzen zutela lekuz aldatzea. Horrela deskribatzen zituen Ikuskariak maistra nazional hauen egoera:

Señoritas, por lo regular, acostumbradas a comodidades de higiene y de bienestar que allí brillan por su ausencia. Pero todo se puede sufrir con espíritu de caridad y de resignación, pensando que uno atiende la cultura y educación de modestos españoles que no debemos ni podemos abandonar por alejados que estén y por deficientes que sean. La maestra se ve precisada a soportar una soledad (solo los pequeños entienden el castellano) y unas condiciones higiénicas y de alimentación que le horrorosa³⁸.

37. GAN. Tolosa JD IT 1456,1998.

38. AUA Sinatura 1293. Kodea 271. Urteak 1955-1970. 1955ko azaroaren 7a. Lehen Hezkuntzako Ikuskariak, herriko alkatea zen D. Pedro Uriari bidalitako idatzia.

Baina eskola eredu honek ez zituen asebetetzen baserritarren gogo eta beharrak. Horrela eskolara ez joatea gogor zigortuta egon arren, oraindik ikasle asko ziren eskolara joan ordez piper egiten zutenak. Eskola berriak eraikitzea ez zen nahikoa baserrietako seme-alabak eskolara erakartzeko eta hauei isuna jarzteak ere ez zuen arazoa konpondu –1967an Azkoitiko Izarraitz auzoko baserritar askok 500 pezetako isuna jaso zuten, bere semeak ez zituztelako bailarako Eskola Nazionalera bidaltzen, pezetarik ez zuen baserritarrarentzat nolako kolpea Udaketik jasotzea neurri honetako isuna–. 1967an Azkoitiko Udalak, idatzia bidali zien hainbat baserritarrei esanez BOE-k (Estatuko Aldizkari Ofizialak), eskolara sarritan huts egiten zuten haurrentzat Eskola-Etxeetara (Escuelas Hogar) joateko diru laguntzak zeudela. Pentsa zer eskaintzen zitzairen, 6-14 urte bitarteko baserrietako seme-alaba haurrentzat, etxean lagundu beharrean erbesteko eskola arrotz batzuetara joatea barneko-ikasle gisa³⁹. Ikusten denez eskola eta irakaskuntza landa errealitatek oso urritu zeuden eta bertako errealitatea ez zuen kontutan hartzen hezkuntzaren ardura zuten instituzioek.

1960-70 hamarkadetan eskola nazionalak, auzoetan zeuden landa-eskola txikiak ordezkatzen joan ziren. Baina ez zuten hauek ere luzaro iraun. Gizarte aldaketek, bide berriak eraikitzea, irakaskuntzaren zentralizazioak... eta 1970ko Legeak, poliki-poliki bideratu zuten landa-eskola nazional hauen desagerpena.

Hiritar gizartea, landa gizartea irensten ari zen. Jadanik landa-eskolak ere irentsiak zituen. Oso urritu gelditzen zen Aldundiak eraturako Auzo-eskolen proiektua. Aldundiaren hezkuntza ahalmenak, auzo-eskolak eta landa-eskolak txikiak historia ziren.

39. Ibid., 1967ko abustuaren 28an Juan Maria Urangari, Arrospide baserrikoa, bidalitako gutuna.